

KIDEITUn aztergai dugu: Jakintzaren Gizartea, guztiontzako gizartea?

Jakintzaren gizarteak ekarritako aldaketek aukera ederrak ematen dituzte. Baina aurrerakuntza horien baitan, gizartean haustura gertatzeko arriskua ere badago. Emakumezkoek gizonezkoek baino arrisku handiagoa dute aukera horiek galtzeko.

(2. eta 3. orrialdeetan jarraitzen du)



Gomendioa:

>>Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunari buruzko Batzordearen txostena

2007. Batzordeak egindako txosten honetan, berdintasunaren alorrean EBN zer lorpen izan diren eta etorkizunerako zer erronka dauden aztertzen da.

(4. orrialdean jarraitzen du)



EQUAL Euskadi agenda

>>> **AURRERATU.** Enpresetan lana eta familia uztartzeko neurriak hartzeko laguntzak, neurriria.

>>> **GERTU.** Ardurak elkarren artean banatzeari buruzko sentsibilizazio-kanpaina.

>>> **ENPLEGUAREN BIDETIK.** Prestakuntza Plana, zeharkako gaitasunak
>>> **LAMEGI.** Klausula Sozialei buruzko Legez besteko Proposamena.

(5. orrialdean jarraitzen du)



Eguneratu...

>>> **Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea.** Emakunde eta EUDEL.

>>> **EQUAL eta Erantzukizun Soziala Enpresan.** UAFSE (MTAS).

>>> **Genero Foro Birtuala eta IKT Iberoamerikan.** UNESCO.

(6. orrialdean jarraitzen du)



KIDEITU aholkularitza

Idatzi agentesempleo@adequalkideitu.org helbidera, eta hurrengo buletinean, galdera interesgarrienei emandako erantzunak irakurriko dituzu.



KIDEITU n aztergai duugu

KIDEITU n aztergai dugu: Jakintzaren Gizartea, guztiontzako gizartea?

Duela zenbait hamarkadatik, '**jakintzaren gizartea**' izeneko paradigma emankor berrian sartu gara herrialde aurreratuak. Gizarte industrialean, lehengaiek sortzen zuten aberastasuna; egun, berriz, kapital intelektuala da ondasun estimatuena. Horrenbestez, gaur egungo gure gizartean aktibo nagusia bertan lan egiten duten pertsona-multzoak dira, haien jakintzak, ematen duten esperientzia, bai eta esperientzia edota jakintza horiek partekatze gaitasuna ere.

Informazioaren eta telekomunikazioen teknologiak (IKT) nahiz ikerketa eta garapen (I+G) arloan izandako aurrerakuntzak funtsezkoak dira jakintzaren gizartean; izan ere, baliabide horiei esker iritsi ahal izan gara gizarte mota horretara.

Jakintzaren gizartean izandako aldaketek aukera ederrak ematen dituzte. Baina aurrerakuntza horiek direla-eta, gizartean haustura gertatzeko arriskua ere badago, jakintza erabiltzen eta kudeatzen duten pertsonen eta jakintza ez duten edota eskuratu ezin duten pertsonen artean. Emakumezkoek gizonezkoek baino arrisku handiagoa dute bigarren talde horretan egoteko.



Hausnarketarako zenbait datu

Oro har, jakintzaren gizarteari dagokionez, estatuko egoera eta Euskadikoa nahiko atzera daude Europako egoeraren aldean. Bi adierazlek azaltzen dute hori:

- **I+G-n gastatzen dena:** Espainian BPGd-aren %1,13 da, eta Euskadin, %1,43. Ehuneko horiek oso urrun daude Finlandiako, Suediako, Alemaniako, Austriako, Danimarkako edo Frantziako ehunekoetatik, herrialde horietan %2 eta %3 ere gainditzen baitute.
- **Interneteko erabiltzaileen ehunekoa:** estatuko batez besteko ehunekoa EB-25eko batez bestekoa baino %8 txikiagoa da; Euskadin, %2 txikiagoa.

Eta testuinguru horretan, zalantzarik gabe, **emakumezkoen egoera gizonezkoena baino okerragoa da:**

- Espainia da EBko herrialdeetatik emakume ikertzaileen ehuneko txikiena duenetako bat; Portugal baino ez du atzetik. Estatuan, I+G-n emakumezkoen %28k egiten du lan; Euskadin, %32k.
- Internet erabiltzen duen biztanle-kopuruari dagokionez, Euskadiko emakumeen %38 da erabiltzailea, eta gizonezkoen %45. Zazpi puntuko aldea dago, eta Espainia osoan, 10 puntuko.

Baina '**lehen genero-arraila**' adierazten duten zenbaki horietatik haratago, jakintzaren gizartean emakumezkoek eta gizonezkoek duten errealitate kualitatiboak argi erakusten du '**bigarren arrailak**' sortzen ari direla; eta bigarren arraila horiek, I+G eta IKTen sektoreetara iritsi ahal izatearekin baino gehiago, sektore horietan duten presentzia-motarekin dute zerikusia: sektore horietako enpleguaren prekaritatea, erabaki-postuetan presentzia eskasa, teknologiak erabiltzeko intentsitatea eta erabilera-mota...

Iturriak: INE. Europako Datuak. I+G. 2004; INE. Europako Datuak. IKT inkestak etxeetan. 2005; INE. Goi-teknologiako adierazleak. 2005; INE. IKT sektorearen adierazleak, 2005; INE. IKT inkestak etxeetan. I. Hiruhilekoa 2006; EUSTAT: I+G-n gastatutakoa (% BPGd) herrialdeka. 2005; EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika. 2005; EUSTAT. Informazio Gizartearen inkesta –ESIF. 2006

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

KIDEITU n aztergai duzu

Jakintzaren gizarteko estrategia publikoetako berdintasuna

Hala eta guztiz ere, jakintzaren gizartean, aurrerakuntza-estrategietan ez da ia aintzat hartzen berdintasun-printzipioa. I+Gren eta Informazio Gizartearen plan estrategikoetan berdintasunari buruzko helburuak ezartzea ez da ohikoa izaten; araua baino gehiago, salbuespena izan ohi da.

EBko politiketan, **i2010 Ekimenak** emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunari behar adinako garrantzia eman gabe jarraitzen du. Bestalde, Estatuan, **INGENIO 2010** estrategiak –eta, zehatz-mehatz, horren baitako **Aurrera Planak**– nolabaiteko aurrerakuntza ekarri du, informazioaren gizartean landu beharreko estrategiatzat jo baitu genero ikuspegia. Izan ere, deialdi bat egin da eta berariazko funts bat ezarri da, informazioaren gizartean generoa bultzatzeko proiektuak egiteko. Hala ere, horrenbeste bilatzen den ‘zeharkakotasun’ horrek indarra galtzen du, ikusita zer-nolakoak diren Planaren baitan egindako gainerako deialdi guztiak, eta ikusita zer-nolakoak diren gainerako jarduera-ildoak (gehiago begiratzen baitzaie irizpide ‘teknologikoei’ eta ‘enpresa-irizpideei’).

‘**Euskadi Informazio Gizartean**’ Planari dagokionez, pertsonengan eta prestakuntzan inbertitzea du helburuetako bat, prestakuntza eta lana aukera-berdintasunaren irizpideen arabera zabalduz eta “informazio-bazterketa” eragotziz; baina ez ditu genero-helburuak zehazten. Plan horretan, bazterketa-teknologikoa izateko arriskua duten emakumeen kolektiboentzako zenbait ekintza ageri dira, alfabetizazio digitalerako, baina gaia ez dute estrategikoki lantzen. Bestalde, oraindik indarrean dago ‘**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana**’ (2001-2004), eta bere helburuen artean, ikerketan emakumearen presentzia bultzatzea aipatzen du, baina ez du aipatzen helburu hori lortzeko neurri zehatzik.

Hala ere, ikuspegi estrategikorik ez dagoela ikusita, **ekimen** asko abiarazi dira, eta haietako bakoitza, banaka, aurrerapauso ugari ari da ematen, jakintza gizartea berdintasunezkoagoa izan dadin. Ezagutarazi egin behar dira ekimen horiek, beste esparru batzuetara eraman behar dira, eta erakundeen agendetan sartu behar dira.

Hala eta guztiz ere, **bide luzea dago egiteko**.

Zer erronkari egin behar zaie aurre?

Lan erraza ez den arren, eta jakintzaren gizartean emakumearen kokapena hainbat ikuspuntu konplexutatik jorratu behar denez, hauek dira aintzat hartu beharko genituzkeen erronketako batzuk:

- Jakintzaren gizartean parte hartzen duten emakumeei buruzko informazio-kopurua zabaltzea.
- Teknologiako ikasketetan eta ikasketa zientifikoetan emakumearen parte-hartzea bultzatzea.
- Generoaren arraila digitalari aurre egitea eta berdintasunerako informazioaren gizartea eraikitzea.
- I+G inguruetan, emakumeen presentzia kuantitatiboa eta kualitatiboa sustatzea.
- Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren eremuetan eta sektoreetan bidea egiten ari diren emakumeak babestea eta ikusaraztea, haien ekarpenak, lorpenak eta eskariak aktiboki zabalduz.



Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunari buruzko Batzordearen txostena 2007

2007ko otsailaren 7an, Europar Batasuneko gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunari buruzko laugarren txostena ezagutarazi zuen Europako Batzordeak.

Lehenik eta behin, politikan eta legedian izandako aurrerakuntza aipatzen du, eta berdintasun-printzipioa jasotzen duten arau nagusiak zein diren zehazten du (berdintasunerako Lan Plana 2006-2010, Genero Berdintasunerako Europako Ituna, Europako etorkizun demografikoari buruzko Komunikazioa, lana eta bizitza uztartzeko gaiei buruz agente sozialei egindako kontsultak, Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren sorrera, Egitura Funtsten araudi berria, EBren Progress programa, gizarte-babes eta -inklusioko esparru berria, Hamabost egunez behingo Ekintza Plana herrialde mediterraneoetako emakumeen rola indartzeko, eta abar).

Emakumearen egoerari dagokionez, emakumeen enplegu-tasak igo eta langabezia-tasak jaitsi egin direla nabarmendu behar da. Hala eta guztiz ere, eta txostenak esan arren *“Egun ere emakumezkoen laneskua dela Europako enpleguaren hazkunderen motorra”*, bada desberdintasunik oraindik: lana eta bizitza uztartzean, lanpostuen bereizketan, erabakiak hartzeko postuetan, prestakuntza-espezialitateak aukeratzean, soldatetan, bazterketan eta pobrezian...

Errealitate hori ikusita, eta *“gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako politikak funtsezkoak direnez hazkunde ekonomikorako, oparotasunerako eta lehiakortasunerako”*, Batzordeak estatu kideak hainbat arlo giltzarritan babestuko dituela dio txostenak:

- **Lan-merkatuan gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak ezabatzea**, zenbait egoerari aurre egiteko: lanpostuen bereizketa, erabakiak hartzeko postuetarako aukerarik eza, soldata-desberdintasuna, lanean “malgutasuna” izatea “segurtasunaren” orde, eta zenbait talde bereziren aukera urriak (gazteak, adinean aurrera doazen emakumeak, gutxiengo etnikoak...)
- **Gizonezkoen eta emakumezkoen artean ardura pribatuak eta familiakoak banatzean oreka handiagoren alde egitea**, gizonezkoek ere guraso-baimena izatea bermatuz, besteren mendeko pertsonentzako laguntza-zerbitzu irisgarriak eta eskuragarriak garatuz, etxeko arduetan gizonezkoak inplikatzuz, maila guztietan genero-estereotipoen aurka eginez, eta enpresetan lana eta familia uztartzeko formulak sustatuz, batez ere enpresa txiki eta ertainetan.
- **Nekazaritzako kohesio- eta garapen-politikek gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako politikak erabat babestea bermatzea**, Egitura Funtsak banatzeko fase bakoitzean berdintasuna sustatuz, programazioaren esparruan ikuspegi duala aplikatuz, eta esparru horretan hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak eta jardunbide egokien trukeak sustatuz.
- **Legeak benetan aplikatzen direla bermatzea**, justizia-sistemako agenteengan berdintasunerako gaitasunak indartuz, tratu berdinen legea benetan aplikatuz, eta berdintasunerako erakundeen lana aktiboki babestuz.

Horretan oinarrituz, eta ondorio gisa, Batzordeak Kontseiluari eskatzen dio estutu ditzala estatu kideak, erronka horiei aurre egin diezaieten.

Batzordeak emandako txostena, Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari, eta Eskualdeetako Lantaldeari, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunari buruzkoa, 2007. COM (2007) 49 azkena (http://ec.europa.eu/employment_social/gender_equality/docs/2007/com_2007_49_es.pdf)



EQUAL Euskadi agenda

>>> AURRERATU proiektua.

EQUAL AURRERATU proiektuarekin, Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzako, mikroenpresa txiki eta ertainentzako eta Gizarte Ekonomiako Enpresentzako laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak onartu dira, enpresetan bizitza eta lana uztartzeko neurriak ezartzeko.



Informazio gehiago:

<http://www.aurreratu.org>

>>> GERTU proiektua.

GERTU proiektuak sentsibilizazio-kanpaina bat abiarazi du, bizitza pertsonaleko, familia-bizitzak eta bizitza profesionaleko ardurak banatzea eta uztartzea lortzeko. Helburua da etxeko lanak eta zaintzako lanak egungo gizartearen bizimoduari atxikita daudela eta pertsonentzat beharrezkoak direla ohartaraztea.



Informazio gehiago: <http://www.equal-gertu.com/>

>>> ENPLEGUAREN BIDEKIDETIK proiektua.

EQUAL proiektuari esker, lehen Prestakuntza Plana abiarazi da Ezkerraldeko eta Meatzaldeko langabeentzat. Udalek, enpresek eta sindikatuek hartu dute parte. Berrikuntzarik ere izan da: hain zuzen, Plan horretan, zeharkako gaitasunen prestakuntza sartu da, eskualde horretako enpresek gero eta gehiago eskatzen baitituzte halako gaitasunak.



Informazio gehiago:

http://www.enpleguarenbidekidetik.net/difusion/ca_noticias_ficha.asp?ficha=78

>>> LAMEGI proiektua.

Joan den ekainaren 8an, Eusko Legebiltzarrean, Klausula Sozialei buruzko Legez besteko Proposamena eztabaidatu zuten. EQUAL LAMEGI proiektuak sustatu eta aurkeztu zuen proposamen hori.



Informazio gehiago:

http://www.lamegi.org/cast/noticias_view_id.php?idnews=59&categoria=45

>>> DENDA proiektua.

EQUAL DENDA proiektuaren web orrian dagoeneko ikus daiteke "Merkataritzako lan-harremanen esparruko jardunbide egokien azterketa".

Informazio gehiago:

<http://www.denda-equal.org/docs/ConveniosDefinitivo.pdf>



>>> KIDEITU proiektua.

Ekainean amaitu ziren Berdintasunerako Prestakuntza Gelako hirugarren eta azken ekitaldiko ikastaroak. Ikastaro horietan, enplegu-programetan eta -proiektuetan genero-ikuspegia barnerratzeari aritu dira, bai eta ebaluazioa aukera-berdintasunaren ikuspuntutik egiteaz ere. Egun, Prestakuntza Gelako informazio guztia norberak erabiltzeko on-line modulu batean biltzen ari gara; azarorako prest egongo da on-line modulu hori.



Gainera, KIDEITU proiektutik "Gure ebaluazioetan genero-ikuspegia sartzeko oinarritzko gida" kaleratuko da. Urrian, berdintasunerako lan- eta formazio-agenteen sarera bidaliko dugu.

Informazio gehiago: <http://www.equalkideitu.org>

Zure EQUAL proiektuaren barruan berdintasuna gaitzat hartuta eginiko jardueren berri eman nahi badiguzu, idatzi helbide honetara: agentesempleo@adequalkideitu.org

- [BERDINSAREA- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea](#). Emakunde eta EUDEL.
- [Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana](#). Eusko Jaurlaritza.
- [Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakume Elkarte V. Azoka](#). Bizkaiko Foru Aldundia.
- [Emakume etorkinak, bidaiari nekaezinak](#). Harresiak Apurtuz.
- [Gizonen eta emakumeen langabezia-tasa berdindu egin da lehenengoz, eta %3,4 da oraindik](#). EL PAÍS.
- [Gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunak murrizteko lanean jarraitzen du Batzordeak](#). EB.
- [Emakumeen Memoriaren eta Testigantzen Nazioarteko Zentroa](#). Women's United Nations Report Network.
- [GENERO Foro Birtuala & IKT Iberoamerikan](#). Emakumeari, Zientziari eta Teknologiari buruzko UNESCO katedra.
- [EQUAL eta Erantzukizun Soziala Enpresan](#). UAFSE. MTAS.
- [Generoari eta Komunikazioari buruzko mintegia](#). Emakumearen Erakundea eta Espainiako Lankidetzeta Agentzia.
- [Urteko Lehen Txostena 2007](#). Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia.
- [Ezagutzan Berdintasuna Sustatzeko FECYT Sariaren I. ekitaldia](#). Zientziaren eta Teknologiaren Espainiako Fundazioa.
- [ISIS metodoa: Emakumeen elkarteetan Sistema Planak diseinatzeko eta egiteko gida](#). CELEM.
- [Denboraren balioa: zenbat ordu falta dira egunean?](#). M. Ángeles Durán.
- [Amatasunean sartzea: soldaten eta errentaren eragina ugalkortasunean](#). Andaluziako Ikerketa Zentroa.

